

GENETIKA. Zenbait ikerlarik prozeduraren itzalak kritikatu dituzte

Genetikoki eraldatutako haurrak sortu izana ukatu dute zientzialariek

Kalterik eragiten ez duen material genetikoa gehitu dutela diote

Agentziak | WASHINGTON

«Ez dugu genetikoki eraldatutako haurrik sortu», esan zuen atzo Giacomo Cohenek, St. Barnabas Ernakuntza Medikuntza Institutuko zientzia zuzendaria, atzo hautsak harrotu zituen albistearen oihartzuna apaldu eta egindakoa zehaztu nahian.

St. Barnabaseko taldeak zito-plasmaren transferentzia erabili du hainbat emakumeren antzutasun arazoak konpontzeko: zenbait emakumek arazoak dituzte haurdun geratzeko, beren obuluko zitoplasma (zelulako nukleoaren inguruko likidoa) kalitate txarrekoa delako; St. Barnabasen emaleen zitoplasma sartu dute arazo hori duten emakumeen obuluetan. Ondoren, lagundutako ernalkuntzako urratsak jarraitzen dira.

Zitoplasman, baina, informazio genetikoa dago, eta St. Barnabaseko ikerlariek ondorioztatu dutenez, zitoplasma emaleen informazio genetikoa pasa da prozesuaren ondorioz jaiotako haurretara. Beraz, hiru lagun geneak dituzte: aitarenak, amarenak eta zitoplasma emalearenak. Haurrak osasuntsuak direla berretsi dute ikerlariek.

St. Barnabaseko arduradunen esanetan, ordea, «teknika berria ez da manipulazio geneti-



Haur jaioberriak, ospitalean.

koa. Teknikaren helburu nagusia da obuluaren barruan dauden arazoak konpontzea, nukleoaren eduki genetikoa aldatu gabe. Zitoplasma aldatu egiten da nukleoaren garapena ahalbidetzeko».

Giacomo Cohen: «Ez dugu generik aldatu»

Giacomo Cohenek azpimarratzen duenez, ez dute generik manipulatu: «Kalterik eragiten ez duen material genetikoa gehitu baino ez dugu egin, ez dugu generik aldatu. Hori guk egin duguna baino urrats handiagoa izango litzateke. Geneak aktiboak ez diren mitokondriako gunek batetik hartu ditugu.

Geneen arteko ezberdintasunak badaude, baina ez dira esanguratsuak».


Hala ere, zenbait zientzialaririk auzitan jarri dute St. Barnabaseko ikerlarien jarduera, mitokondriako ADNren ezezagutzan oinarrituta. Zientzialariek badakite mitokondriak oxigenoa eta elikagaiak erabiltzen dituela zelulentzat energia sortzeko; baina zientzialariek uste dute oraindik ezagutzen ez diren beste hainbat funtzio dituela, eta oraindik oso gutxi ezagutzen dela nukleoko ADNren eta mitokondriako ADNren arteko harremanez.

Informazio gehiago www.sbiivf.com webgunean.

LABURAEAN

ESPAZIOA

Dennis Tito eta bidaide errusiarrak Lurrera itzuliko dira gaur goizean



Tito Lurrera itzuliko da.

NASA eta Errusiako agentzia espazialaren arteko ika-miken oihartzuna oraino itzali ez denean, espazio-ko lehen turista Dennis Tito eta Talgat Musabaiev eta Yuri Baturin bidaide errusiarrak Lurrera iriste-koak dira gaur goizean. Joaneko bidaiaren erabilitako Soyuz TM-32 ISS Nazioarteko Espazio Estazioan utzi eta handik hartutako Soyuz TM-31 ontzian itzuliko dira. Errusiarren espaziontzia goizeko 9:00ak eta 10:00ak aldera espero dute Kazakhstango estepetara jaistea.

PALEONTOLOGIA

Duela 80 milioi urteko dinosauro korazatuak eta narrasti hegalaria idoro dituzte Valentzian

Valentziako Unibertsitateko paleontologok duela 80 milioi urteko dinosauro korazatuak eta narrasti hegalaria idoro dituzte Cherako Parke Geologikoan. Hondakinak Rhabdodon batenak —bost metroko luzera zuen dinosauroa—, Pterosauro batenak, eta Ankilosau edo dinosauro korazatu batenak dira, Julio Company paleontologok esan duenez.

INFORMATIKA

Ordenadorean musika grabatzeko programa batek hamaika arazo tekniko sortu ditu

Easy CD Creator-en azken bertsioak —ordenadoreetan musika grabatzeko programa— makina bat arazo eragin ditu, hainbat erabiltzailearen arabera. Egileek onartu dute arazoak badaudela, baina bezero gutxiri eragin diela. Ordenadoreak blokeatzeaz gain, hainbati pantaila urdinaren errorea agertu zaio, informatika munduan heriotzaren pantaila urdina gisa ezagutua.

IKERKUNTZA

Antibiotikoek zelulen funtzionamendu normala nola eteten duten aurkitu dute Erresuma Batuan

Erresuma Batuko MRC Ikerkuntza Medikuen Kontseiluko zientzialari batzuek egungo antibiotikoekiko erresistentzia gaindi dezakeen modua ediren dute. Proteinak ekoizteko zelulek geneetan kodetuta dagoen informazioa nola itzultzen duten aurkitu dute. Ikertzaileek badakite ribosoma izeneko egitura batek kontrolatzen duela zeluletan proteinen ekoizpena. Orain prozesua zehatz-mehatz nola gertatzen den kausitzean, zientzialariek ikusi dute antibiotikoek prozesu hori sabotajea egiten diotela; hala, hori saihesteko botika berriak garatzen ahalginduko dira ikertzaileak.

aekren aldizkaria

aizui!



Euskara errazean idatzia, koloretsua eta bizia
Aldizkari paregabea euskara ikasten ari garenontzat

Urteko harpidetza (10 ale): Hego Euskal Herrian 2.500 pezeta

Ipar Euskal Herrian 180 libera

Harpidetza egiteko: 94 415 95 12

Ez galdu aukera, egin zaitez harpidedun!!!

- %20ko deskontua lehenengo urtean
- Lehenengo laurhun harpidedunek ikastira jasoko dute etxean
- Aukera hau aprobetxatuko dutenen artean landetxe batean asteburu bat, sinonimoen 7 hiztegi eta 5 hiztegi CD zozketatuko dira*



*Eskaintza 2001-06-14n bukatuko da. Ondoren, zozketa egin eta uztaileko alean irabazleen izenak argitaratuko dira.